

Kurutziaga ikastola KiVa-ikastola da, baina... zer da KiVa?

KiVa *Bullying*aren aurkako programa da, ikerketan eta froga ziurretan oinarritutakoa. Finlandiako Turkuko Unibertsitatean garatutakoa da.

KiVaren helburua *bullying*ari aurrea hartzea eta gerta daitezkeen kasuei eraginkortasunez aurre egitea da. Hamarkadetan zehar *bullying*aren eta bere oinarrien inguruan egindako ikerketa zabalean oinarrituta dago programa. Hiru ardatz nagusi ditu : aurrea hartzea, esku hartzea eta jarraipena egitea.

KiVa ez da proiektu iragankor bat, jazarpena prebenitu eta murrizteko jardunbide iraunkor bat baizik.

Baina, zer da *bullying*a edo jazarpena?

Portaera mingarria/tratu umiliagarria,

- nahita egiten dena
- behin eta berriz egiten dena
- erlatiboki babesgabea den edo botere txikiagoa duen pertsona baten aurka egiten dena

Eta, zer ez da *bullying*a edo jazarpena?

- liskar bat ez da jazarpena
- eztabaida bat ez da jazarpena
- borroka bat ez da jazarpena

Jazarpena harreman zapaltzaile baten adierazpena da; botere- eta indar-abusua.

Batez beste, eskola-adinean dauden haurren %10ek sistematikoki jasotzen du jazarpena.

Jazarpena ez da soilik jazarle eta biktimen kontua. Jazarpenezko gertakari gehienetan, ikaskide talde bat izaten da tartean.

Haur gehienek ez dute jazarpena ontzat hartzen; hala ere, askok jazarlearen portaera bultzatzen dute, barre eginez edo isilik egonda.

Garrantzitsua da ikasleek ulertzea beraien jokabideek eragina izan dezaketela!

“Elkarrekin jazarpena geldiaraz dezagun!” (*Haurrek ahotsak*)

Hori da KiVa programaren oinarrian dagoen ideia nagusia.

Prebentzio-ekintzak ikasle guztiekin lantzen diren 10 ikasgaietan bilduta daude. Besteak beste honako hauek hartzen dituzte: errespetuzko tratua, pertsonen arteko desberdintasunen onarpena, emozioak identifikatzea eta erregulatzea, talde-presioari eustea, jazarpena identifikatzea eta jazarpenaren aurrean modu konstruktiboan jokatzeko...

KiVa arauak ikasturte osoan zehar taxutzen goaz. Ikasturtearen amaieran, arau guztiak bildu eta KiVa kontratuaosatzen dugu guztion artean sinatzeko.

Ikastolan hainbat langilek osatzen duten KiVa taldea daukagu; irakasle talde osoarekin batera KiVa programaren gauzapez eta honen jarraipenez arduratzen dena.

Kurutziaga ikastolan programa hau ezarri genuenetik, ikasleek lasaitasunez hitz egiten dute gelan jazarpenari buruz, ezagutza eta kontzientzia handiagoa dute. Taldeak duen garrantziaz jabetuta, elkartasun eta laguntasun jarrerak gero eta ohikoagoak dira. Irakasleok ere ezagutza handiagoa daukagu gai honen inguruan, eta ikastolako esparru guztien arteko koordinazioan eta lankidetzan oinarritzen da gure eguneroko lana.

Etxekoen eta ikastolaren arteko lankidetzagarrantzitsua da *bullyinga* ekiditeko.

Jazarpen-egoera guztiak serio hartzea eta ikastolarekin lankidetzan jardutea izango da familiek jazarpena murrizteko egin dezaketen ekarpenik onena.

Animatu ditzagun haurrak jazarpenean ez parte hartzera, biktimak babestera, eta jazarpenik ikusten badute helduei esatera!

KiVa dioen bezala, egin dezagun elkarrekin!

Informazio gehiago:

<https://data.kivaprogram.net/basque/gurasoak/gurasoen-gida>